Duela zenbait urtetik hona, Gasteizko Udalak lagundu egiten du "Oporrak Bakean - Vacaciones en Paz" programa garatzen (Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren bitartez). Programa horrek errefuxiatuen kanpamenduetan jasaten dituzten bizi-baldintza latzetan etena hartzeko eta beste errealitate ezberdin batzuetan murgiltzeko aukera eskaintzen diete haur saharrarei.

Aurtengoan ere, 2025an, 22 mutiko eta neskato saharar etorriko dira, bertoko harrera-familietan bi hilabeteko oporraldiaz gozatzera Arabako Lurralde Historikoan, ekainaren amaieratik abuztuaren amaierara arteko aldian.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren xx(e)an hartutako erabakiaren bidez, lankidetza-hitzarmena formalizatu zen, AFANISekin (HAUR SAHARRAREN HARRERARAKO FAMILIEN ELKARTEA) eta FRONTE POLISARIOAK EUSKADIN DUEN ORDEZKARITZAREkin, hamahiru mila laurehun eta laurogeita sei euro eta berrogeita hamabost zentimoan (13.486,55 euro).

Horren haritik, egintza honetarako nahikoa gaitasun eta eskumen aitortzen diote elkarri bi aldeek, eta lankidetza-hitzarmen hau sinatu dute, klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

### LEHENA: DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

Dirulaguntza izendunaren hitzarmen hau jasota dago indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2025-2027).

Helburu hau lortu nahi da hitzarmenaren bidez: "Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua hedatzea, GGKEak indartzea eta Saharako haurrak aldi baterako hartzeko jarduerei laguntzea"

### BIGARRENA: HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmenaren xedea lankidetza-markoa ezartzea da, AFANISen (Haur Saharatrren Harrerako Familien Elkartea), FRONTE POLISARIOAK Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritzaren eta Gasteizko Udalaren artean, horren bitartez "Oporrak Bakean 2025 – vacaciones en paz 2025" proiektuan aurreikusitako jarduerak garatzeko.

### HIRUGARRENA: HITZARMENEKO EKINTZAK

Hitzarmen honetan lortzea espero diren emaitzak eta garatu beharreko jarduera zehatzak izango dira AFANISek (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) eta FRONTE POLISARIOAK Euskal Autonomia Erkidegoan duen Ordezkaritzak aurkeztutako behin betiko proposamenean (1. Eranskina) adierazitakoak. Horien artean nabarmentzekoak dira hauek:

**Emaitzak:**

- **1. emaitza**: Euskal Herriko haurrekin adiskidetasun-harremanak eta harrera-familiarekin lotura sendoak sortzea.
- **2. emaitza**: Egonaldia euskal haurrentzat (eta haien familientzat) benetako truke kultural bihurtzea, eta batzuei zein besteei beste ohitura batzuk dituzten kulturak ezagutzeko aukera ematea, hartara hezibidean laguntzeko.
- **3. emaitza**: Haur sahararrei elikadura ona ematea, bizimodu osasungarriagoa izateko behar dituzten mantenugaiak berreskura ditzaten.

- **4. emaitza**: Haur sahararrei osasun-arreta osoa eta egokia ematea, haur bakoitzaren beharren arabera.
- **5. emaitza**: Arabako Lurralde Historikoan 8 eta 12 urte bitarteko 27 haur sahararren egonaldia ahalbidetzea, eta saharar herriaren eta Gasteizko zein Arabako beste udalerri batzuetako harrera-familien arteko adiskidetasuna sustatzea.

**Jarduerak:**

- Saharako Ordezkaritzak haur berrien eta errepikatzaileen zerrenda itxiak aurkeztea.
- Proiektua hedabideei ezagutzera ematea.
- Herritarrak sentsibilizatzea, kartelen, irrati-espazioen, sare sozialen eta abarren bidez.
- Haurrak hartuko dituzten familiak aukeratzea.
- Haurrak hartuko dituzten familia berriak elkarrizketatzea eta horiei prestakuntza ematea.
- Beste entitate batzuentzako dokumentazioa eta kudeaketak prestatzea, hala nola: Osakidetza, Argiaren Ibilbidea, Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia, TUVISA, Gobernuaren Arabako Ordezkariordetza...
- Bilerak harrera-familiekin.
- Familia bakoitzari ematen zaion dokumentazioa prestatzea.
- Bi pertsona Tindoufera joatea adingabeei laguntzeko.
- Bilbora hegazkinez iristea, Tindoufetik.
- Bilbotik Gasteizera autobusez eramatea.
- Erakundeek haur sahararrei eta haien harrera-familiei harrera egitea.
- Harrera-familiek edozein behar edo arazo izanik ere, laguntza ematea.
- Saharako begirale batek programan parte hartzea, sortzen ziren behar eta arazoei erantzuten laguntzeko.
- Mediku azterketa.
- Familiek nahi izanez gero, haurrak elkarrekin biltzeko jarduerak antolatzea.
- Haurrekin jarduerak antolatzea.
- Etxerako itzulera prestatzea eta antolatzea.
- Gasteiztik Bilbora autobusez garraiatzea.
- Bilboko aireportutik irtetzea.

- Abenduan Afaniseko bi kide kanpamentuetara joatea, 2026ko programa prestatzeko.

**2024ko Oporrak Bakean programari buruzko txostena.**

Programaren azken edizioetan, nabarmen jaitsi zen programan parte hartu zuten Arabako familien kopurua. Horregatik, eta programan familia berriak hartzeko premiaren gorakadaren aurrean, iaz ahalegin berezia egin zen programaren sentsibilizazio- eta hedapen-kanpaina indartzeko, eta Arabako familia gehiago erakarri ahal izateko, horiek baitira adingabeak gure lurraldean egotea ahalbidetzen dutenak.

Gainera, aurtengo programari begira, programaren egungo egoeraren azterketa diagnostiko bat egin zen, familien parte-hartzeari dagokionez, egoera hori sortzen ari diren kausak aztertzeko eta identifikatzeko, bai eta joera hori arintzen edo lehengoratzeko ekintzak ahalbidetzeko datuak lortzeko ere.

Diagnostiko horren bidez, familien bizitza bateragarri egiteko zailtasunarekin lotutako alderdiak agertu ziren parte-hartzeko oztopo gisa.

Horregatik, premia hori arintzen saiatzeko, aurtengo edizioan laguntza txiki bat aplikatu da adingabe bakoitzeko, adingabe horien jolas- edo kirol-jardueren kostuan laguntzeko. Horren haritik, kontziliazioan laguntzeko partida bat gaitu da, 200 euroko gehieneko zenbatekoa duena haur saharar partehartzaile bakoitzarentzat.

## LAUGARRENA: DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Gasteizko Udalaren ekarpena hamahiru mila laurehun eta laurogeita sei euro eta berrogeita hamabost zentimokoa (**13.486,55 euro**) izango da, 2025erako udalaurrekontuaren 2025-2450-2391-48212 aurrekontu-partidaren kargura, honela banatuta:

| KONTZEPTUA | UN | PREZIOA, UN. | GUZTIRA | ARABAKO FORU ALDUNDIA | GASTEIZKO UDALA |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lekualdatzeak** | | | | | |
| Bilbo-Tindouf hegazkina Monitoreak | 2 | 364,35 € | 728,70 € | 728,70 € | 0,00 € |
| Aljeriako bisa | 2 | 100,00 € | 200,00 € | 200,00 € | 0,00 € |
| Tindouf-Bilbo-Tindouf hegazkina Adingabeak | 22 | 740,00 € | 16.280,00 € | 12.580,00 € | 3.700,00 € |
| Bilbo-Gasteiz autobus-bidaiak | 1 | 412,50 € | 412,50 € | 0,00 € | 412,50 € |
| Gasteiz-Bilbo autobus bidaiak | 1 | 412,50 € | 412,50 € | 0,00 € | 412,50 € |
| Gasteiz-Tolosa-Gasteiz autobus-bidaia | 1 | 770,00 € | 770,00 € | 0,00 € | 770,00 € |
| Durango-Gasteiz-Sobron-Gasteiz-Durango auto-bus- bidaia | 1 | 686,40 € | 686,40 € | 0,00 € | 686,40 € |
| Gasteiz-Tindouf-Gasteiz hegazkina. Borondatezko lankideak, abendua | 2 | 615,00 € | 1.230,00 € | 0,00 € | 1.230,00 € |
| | | **GUZTIRA** | **20.720,10 €** | **13.508,70 €** | **7.211,40 €** |
| **Aseguruak** | | | | | |
| Afanis Elkartearen asegurua | 1 | 326,91 € | 326,91 € | 0,00 € | 326,91 € |
| | | **GUZTIRA** | **326,91 €** | **0,00 €** | **326,91 €** |
| **Jardueraren gastuak** | | | | | |
| Abentura Sobron sarrerak | 30 | 32,00 € | 960,00 € | 0,00 € | 960,00 € |
| Umore horia | 30 | 25,00 € | 750,00 € | 0,00 € | 750,00 € |
| Rafiazko poltsak | 22 | 5,00 € | 110,00 € | 0,00 € | 110,00 € |
| Gasteizko Udalaren igerilekuetarako txartela | 22 | 10,30 € | 226,60 € | 0,00 € | 226,60 € |
| | | **GUZTIRA** | **2.046,60 €** | **0,00 €** | **2.046,60 €** |
| **Hedapena, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa, familiak erakartzeko** | | | | | |
| Inprimaketa, Mupiak (41 unitate) | 1 | 328,91 € | 328,91 € | 0,00 € | 328,91 € |
| Lana eta familia bateragarri egiteko laguntza | 22 | 200 € | 4.400,00 € | 2.200,00 € | 2.200,00 € |
| WEBgunea | 12 | 32,21 € | 386,52 € | 386,52 € | 0,00 € |
| AlavaBus autobusetarako kanpaina diseinatzea eta mupiak | 1 | 1.905,75 € | 1.905,75 € | 1.905,75 € | 0,00 € |
| | | **GUZTIRA** | **7.021,18 €** | **4.492,27 €** | **2.528,91 €** |
| **Gastuak:suntsikorrak eta funtzionamendua** | | | | | |
| 790 ereduaren txostenei dagozkien tasak | 38 | 3,86 € | 146,68 € | 0,00 € | 146,68 € |
| | | **GUZTIRA** | **146,68 €** | **0,00 €** | **146,68 €** |
| | | **PROIEKTUAREN AURREKONTUA, GUZTIRA** | **30.261,47 €** | **18.000,97 €** | **12.260,50 €** |
| | | **ZEHARKAKO GASTUAK** | **3.026,15 €** | **1.800,10 €** | **1.226,05 €** |
| | | **OPORRAK BAKEAN PROIEKTUA, GUZTIRA 2025** | **33.287,62 €** | **19.801,07 €** | **13.486,55 €** |
| | | | % 100,00 | % 59,48 | % 40,52 |

## BOSGARRENA: EKINTZEN ERANTZUKIZUNA

1. **Fronte Polisarioaren Ordezkaritzaren konpromisoak:**
   - Programaren oinarriak dokumentu ofizial batean aurkeztea. Dokumentu horretan jasoko dira, batetik, haurrak hautatzeko irizpideak eta haien adinak, eta, bestetik, programatik kanpo uzteko arrazoiei buruzko irizpideak.
   - AFANISeko familiek hartuko dituzten haurren behin betiko zerrenda aurkeztea, betiere "Oporrak Bakean 2025 - Vacaciones en Paz 2025" programaren dokumentu ofizialean ezarritako irizpideak errespetatuz.

Halaber, Arabara datozen haurrak aurkeztutako zerrendako berberak izango direla bermatzeko konpromisoa hartzen du bere gain Ordezkaritzak.

2. **AFANISen (Haur Sahararren Harrera Familien Elkartea) konpromisoak:**
   - Zehaztutako harrera-familien kopurua osatzea.
   - Harrera-familien zerrenda aurkeztea Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Adingabeen eta Familiaren Arloari.
   - Hitzarmen honen xede den jarduera-programa behar bezala gauzatzen dela bermatzea.
   - Aurreikusitako jarraipen-txostenak aurkeztea.
   - Laguntza honen ondorioz sortzen den agiri guztietan Gasteizko Udalak laguntza ekonomikoa eman duela jakinaraztea, eta Udalaren logotipoa behar besteko proportzioan agerraraztea.

3. **Gasteizko Udalaren konpromisoak:**
   - Onartutako ekarpen ekonomikoa bideratzea.
   - Lakuako gizarte-etxea erabiltzen uztea, batetik bertan objektuak gordetzeko, eta, bestetik, haurrak Gasteizera iristen diren unean haiei harrera egiteko.
   - Programan parte hartzen duten haurrei garraio publikoaren erabilera ahalbidetzea.
   - Programan parte hartzen duten haurrei udal-igerilekuetara sartzen uztea.

AFANISek (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) kudeatu eta gauzatuko ditu hitzarmen honetan zehaztutako jarduerak. Horrenbestez, hitzarmena egoki garatzeko behar diren baliabide teknikoak, materialak,

administratiboak eta giza baliabideak jarriko ditu, dirulaguntzaren onuraduna den aldetik.

Udal-instalazioak erabili ahal izango dira hitzarmen honen xedearen garapenean aurreikusitako jarduerak egiteko, baldin eta eskuragarri badaude, eta, betiere, Kultur eta biltzar ekipamenduak, ekipamendu polifuntzionalak eta gizarte-etxeak erabiltzeari buruzko Ordenantzan xedatutakoaren arabera. Instalazio horien erabilera gutxienez 15 egun balioduneko aurrerapenarekin eskatu beharko da.

## SEIGARRENA: DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Gasteizko Udalak ordainketa bakarrean abonatuko du urteko hitzarmen honi dagokion ekarpena.

Ordaindu aurretik, AFANISek (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar ditu.

Honako kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: entitate onuradunak Udalak emandako dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik.

## ZAZPIGARRENA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Jarraipen-batzorde bat eratuko da hitzarmenaren jarduerak nola gauzatzen diren kontrolatzeko eta ebaluatzeko.

Gasteizko Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuko zenbait teknikarik eta AFANISeko (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) ordezkari batek osatuko dute batzorde hori.

Zeregin hauek izango ditu Jarraipen-batzordeak:

- Hitzarmen honen garapena aztertzea.
- Aurreikusitakoak betetzen direla zaintzea, bereziki konpromisoak eta epeak.
- Konpromisoak eta epeak betetzetik zein ez betetzetik erator daitezkeen erabakiak jakinaraztea.
- Irteera-zerrenda egiaztatzea.
- Batzordeak ohiko bi bilera egin behar ditu urtean zehar; alabaina, ezohiko bilerarik ere deitu ahal izango du, hala behar izanez gero.

Programa onik garatzeko eta haren kudeaketa hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak oro proposatu ahalko ditu.

## ZORTZIGARRENA: JASOTAKO LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

AFANISek (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) emandako dirulaguntza izenduna justifikatu beharko du, Gasteizko Udalaren 2023ko uztailaren 28ko Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren VI. kapituluaren ("Dirulaguntzak justifikatzea") 33. artikuluan xedatutakoaren eta ezarritako epeen arabera. Honako hauek jasoko ditu justifikazio horrek:

**Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoen justifikazioa.** Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, ez Gasteizko Udalak emandakoa bakarrik, eta berariaz adierazi beharko da zein kostu egozten zaion Udalak emandako dirulaguntzari.

**Justifikatzeko sistema.** Egindako gastuaren justifikazioko kontu arrunta aurkeztu beharko du dirulaguntzaren onuradun den entitateak hori justifikatzeko, ondoren adierazten denaren ildotik.

Onuradunek justifikazio-kontua aurkeztu beharko dute dirulaguntza justifikatzeko, hiru hilabeteko epean, diruz lagundutako programa edo jarduera amaitzen denetik kontatuta.

Txosten narratiboak eta justifikazio-memoriak euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, eta dirulaguntza jasotzen duen entitatearen legezko ordezkariak sinatuta egon beharko dute. Zati narratiboa testu-prozesadorearen formatuan aurkeztu beharko da, eta zati ekonomikoa kalkulu-orriaren formatuan. Gainerako dokumentazioa edo materiala maneiatu, berrikusi eta editatzeko aukera ematen duen formatu digitalean aurkeztu beharko da, zer den ere —irudiak, bideoak, grabazioak, planoak...—. Digitalizatzea ezinezkoa bada, euskarri egokian aurkeztu beharko dira.

**Justifikazioko kontuak** alderdi hauek jaso beharko ditu:

a. Hitzarmen honi jarraiki egindako jardueren **azalpen-txostena**.

b. **Jardueren kostua justifikatzen duen oroitidazki ekonomikoa**, justifikazio-kontu arruntari jarraiki osatua (Udalaren webgunean eskuragarri dauden ereduen arabera: www.vitoria-gasteiz.org/lankidetza), honako hauek jasoko dituena:

   - **Funts propioen edo beste erakunde batzuetatik jasotakoen justifikazioa**. Proiektua edo jarduera hainbat entitate publikok edo pribatuk finantzatzen badute edota entitate onuradunaren funts

propioekin finantzatzen bada bete beharko da eranskin hau. Azken kasu horretan, ez dago horien ordainketa justifikatzen duten agiriak aurkezteko beharrik (nominak, fakturak eta abar).

- **Diruz lagundutako proiektuari dagozkion gastuen egiaztagirien zerrenda.** Udal dirulaguntzari egozten zaizkion gastuak justifikatzeko bete beharko da eranskin hori. Gastu motak zerrendatu eta alderdi hauek zehaztu beharko dira, bertan adierazten den moduan: hartzekoduna, kontzeptua, data eta zenbatekoa. Jatorrizko fakturak eta ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak erantsi beharko zaizkio.

  Eskudirutan ordaintzekotan, legez ezarritako mugapena aintzat hartu beharko da; webgune honetan kontsulta daiteke: www.agenciatributaria.es.

  **Egindako jarduerak beste modu batez egiaztatu ezin direnean bakarrik onartuko dira hartu-agiriak**. Edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izango da enpresaburua edo profesionala izan, kasu horretan dagokion faktura egin eta eman beharko baitu ezinbestean.

  Hartu-agirian datu hauek agertu behar dira:

  - Jaulkitzailearen zein jasotzailearen izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
  - Gauzatutako eragiketaren edo zerbitzuaren deskribapen zehatza, eta haren prezio osoa.
  - PFEZaren atxikipena; dagokion zerga-agentzian ordaindu dela egiaztatzen duen agiria erantsi behar da.
  - Tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

- **Proiektuaren /jardueraren diru-sarrera eta gastuen balantzea.**

- **Langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak** (ez dagokio)
  Eranskin hau beteko da diruz lagundutako proiektuaren langile-gastuak eta Gizarte Segurantzakoak justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunaren kontura izan diren nominak eta TC agiriak (gaur egungo RNT eta RLC agiriak, gaztelaniazko *Relación Nominal de Trabajadores* eta *Relación de Liquidación de Cotizaciones*, hurrenez hurren) erantsita. Agiri horiek enpresek beren langileengatik Gizarte Segurantzari ordaindu behar dizkioten kuotei buruzko informazioa jasotzen dute.

- **Gastu, dieta eta bidaien banan-banako likidazioa.**
  Likidazioa osatu beharko da bidaia-, dieta-, garraio- eta mantenugastuak eta antzekoak justifikatzeko.

Gastuei dagozkien merkataritza-agiriak (garraio-txartelak, tiketak, fakturak...) erantsi beharko zaizkio likidazioari, horiek izango baitira zenbatekoa zehazteko oinarri.

Emandako dirulaguntza ez justifikatzea edo behar bezala ez justifikatzea.

Justifikatzeko obligazioa betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar dezake berekin, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Nolanahi ere, ezingo da dirulaguntza ordaindu, harik eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzuli behar delako ebazpen baten ondorioz zordun bada ere.

Gomendioak

Artxiboei zein eranskinei dagokienez, artxibo bakoitzaren gehieneko tamaina 20MB izango da, eta gehieneko bereizmena, hazbeteko 200 puntukoa, zuri-beltzean.

## BEDERATZIGARRENA: BESTELAKO BETEBEHARRAK

Hitzarmen honetan aurreikusten ez denari dagokionez, toki-korporazioei aplikatu beharreko indarreko araudian eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Udal Ordenantzan xedatutakoaren mende egongo dira aldeak, eta, besteak beste, erregelamendu-xedapen horren 12. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

## HAMARGARRENA: HITZARMENA ALDATZEA

AFANISek (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) hitzarmenaren edukiak aldatzeko proposamenak aurkeztu ahal izango dizkio Jarraipen-batzordeari. Aldaketa-proposamenak hitzarmeneko aurrekontu osoaren % 15etik gorako aldaketa badakar partiden edo jardueren artean, aldatzeko erabakia Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko du, alde interesdunak aldez aurretik eskatuta. Nolanahi ere, hitzarmenaren indarraldia bukatu aurretik egin beharko da eskabidea.

Partiden gastuaren egozpena dirulaguntzaren zenbatekoaren % 10 baino gehiago desbideratzen bada aurkeztutako aurrekontutik, elkarteak horren berri eman beharko dio Gasteizko Udalari, eta aurrekontuaren aldaketak jasotzen dituen beste aurrekontu bat helarazi beharko dio, Gasteizko Udalak aldez

aurreko baimen espresua eman dezan, eta ondorioak izan ditzan. Aldaketaren baimena organo eskudunaren ebazpen bidez emango da.

Diruz lagundutako programa edo jardueran funtsezko aldaketarik egin nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio Gasteizko Udalari, berariaz eta aldez aurretik. Berariaz baimenduta baino ezin izango da gauzatu aldaketa. Oro har, administrazioak erantzuten ez badu, aldaketa ezetsi egin dela ulertu beharko da.

## HAMAIKAGARRENA: DATU PERTSONALAK BABESTEA

AFANISek (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) adierazten du betetzen dituela datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia eta, bereziki, bere fitxategiei dagozkien segurtasun-neurriak.

AFANISek (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) bere gain hartzen du lege eta araudi hauetako xedapenak betetzeko konpromisoa: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua —Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen ditu horrek–, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta une bakoitzean aplikatzekoa den datuen babesaren arloko gainerako araudia. Halaber xedapen horietan aurreikusitako eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du hitzarmen honen barruan pertsona fisikoez lortutako datuei dagokienez.

AFANISek (Haur Sahararren Harrerarako Familien Elkartea) bere gain hartzen du datu horiek inori ez lagatzeko konpromisoa.

## HAMABIGARRENA: UDAL FINANTZAKETAREN PUBLIZITATEA DIRUZ LAGUNDUTAKO INTERES PUBLIKOKO JARDUERAN

AFANISek (Ume Sahararrak Hartzeko Familien Elkartea) konpromisoa hartuko du argi eta espresuki adierazteko Gasteizko Udalak laguntzen duela, egiten dituen publizitate-euskarri edo -plataforma guztietan.

Era berean, udal-finantzaketaren berri eman beharko du, baita Gasteizko Udalaren logotipoa jarri ere, diruz lagundutako jarduerarako sortzen edo erabiltzen dituen material inprimatuetan, oroitzapen-xafletan, hedabide elektroniko eta ikus-entzunekoetan, iragarkietan eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren gaineko erantzukizuneko klausula bat erantsi beharko du, testu honekin: Gasteizko Udalak diruz lagundu du proiektu hau, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Hitzarmen honen bidez finantzatutako jarduerei zabalkundea emateko liburuxka, kartel nahiz beste edozein euskarritako materialak oro bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, 2005eko ekainaren 17an onetsitako Dirulaguntzen Udal Ordenantzan adierazitakoari jarraiki (2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO).

## HAMAHIRUGARRENA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BENETAKO BERDINTASUNA

Dirulaguntzaren onuraduna den erakundeak Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoa bete beharko du; Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3., 16., 18.4 eta 23. artikuluetan ezarritako printzipioetara egokitu beharko du bere jarduera, eta konpromisoa hartu beharko du neurriak ezartzeko genero-ikuspegia txertatzeko, batez ere, hizkera ez-sexista erabiltzea eta datuak sexuaren arabera bereizita biltzea eta aurkeztea.

## HAMALAUGARRENA: GARDENTASUN-BETEBEHARRAK

Honako lege-arauetan ezarritako gardentasunaren eta publizitate aktiboaren betebeharrak bete beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2005 Legea; Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3. eta 8.c artikuluak; Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorra, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 49. artikulua.

## HAMABOSGARRENA: BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoi izango dira honako hauek: akordioaren klausulak ez betetzea, eta haren izaerarekin lotuta indarrean dagoen legeriak —bereziki, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta hura garatzen duen Erregelamendua— jasotzen duen beste edozein ez betetzea.

## HAMASEIGARRENA: DIRUA ITZULTZEA

Jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko da, beharrezko den dosierra izapidetu ondoren, kasu hauetan:

- Dirulaguntza zertarako eskatu zuten, hartarako erabili ez badute.

- Finkatutako betebeharrak bete ez badituzte.
- Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 20. artikuluan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. artikuluan eta hurrengoetan, eta bat datozen Dirulaguntzei buruzko Legearen Araudiko artikuluetan —azaroaren 17ko 887/2003 ED— adierazten diren gainerako kasuetan.

Era berean, pertsona edo erakunde onuradunek itzuli egin beharko dute diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainetiko soberakina.

**Itzultzeko prozedura**

Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantzan, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta horren araudian xedatutakora egokituko da dirulaguntza itzularazteko prozedura.

## HAMAZAZPIGARRENA: HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik 2025eko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera sortutako gastuen justifikazioa onartuko da.

## HEMEZORTZIGARRENA: ARAUDI APLIKAGARRIA

Hitzarmen hau aplika daitezkeen administrazio-zuzenbideko arauen mende egongo da, baita honako hauen mende ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean hitzarmenei buruz ezarritakoa.

Eta, adierazitako guztiarekiko adostasun eta oniritziaren erakusgarri, hitzarmen hau izenpetu dute aldeek, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.